

Aretxagazeta

ONGI ETORRI
ZIZTI, ZAZTA, EZIA
ALLA KUIDAUS

ESPELIZIO

In. Malineta




Alla kuidaus

• Bertso saioa

• Ortzadar
taldea

• Kirolak:
II. Mila urbanoa



PSE eta EE-ren bat egiteak tradizio bi elkartzea suposatzen du; bi kultura eta

"Euskadi beste modu batean eraiki daiteke eta eraiki behar da"

Sozialistak: Ezkerra berriztu eta indartu

euskal ezkerrearen bi adierazpideren elkartzea. Indar berri bezala jaio da, alderdi bakoitzaren oinarri soziologikoak jasoaz, gehitu, aberastu eta berrizten duena, gehiengo izateko bokazioz indarrez sartu da Euskadiko mapa politikoan, azkenengo hauteskundeetan garbi geratu denez.

Euskadi beste modu batean eraiki daiteke eta eraiki behar da. Garai berriak datoz gure herrira, balore kolektibo berriak, asmo berriak, gaur egungo arazo zerrenda luzea ahortzaraziko duena: intolerantzia, fanatismoa, enfrentamendua, gizarte-

ren desegituraketa, monopolio kulturala eta krisi ekonomikoa.

Ezkerra eta autogobernua dira proiektu horren ezaugarri nagusiak eta bat egiteak ezkerra indartzeko balio izan du. Ezkerra berriztu eta indartu arazo berriei irtenbide berriak emateko; demokrazian politika eta alderdi politikoak elkarbizitzaren barrutizat errebeindikatzen; individualismo gutxiago eta solidaritate gehiago izango duen gizartea eraikitzeko, banaketa gehiagor eta pilaketa gutxiagor, kalitate hobear, lan-kidetzaren handiagor eta kon-

petentzia txikiagor, des-pilfarro gutxiagor, beste helburu etiko batzuetarantz beste jokabide batzuekin, utopia eskuragarriagoa izan dadin.

Euskal proiektu bat, euskaldunek eginga, Euskadirentzat autogobernurako helburu serio eta aurreratua dakarrena, autonomiarekiko ikuspegi zentralista eta atzerakoiaren aurrean, autodeterminazio eta independentziaren aurrean, eta estremismo foralistak duen Euskal Herriaren ikuspegi suntu-sitzailearen aurrean.

**Iñaki Pierrugues
PSEE-EEko zinegotzia**

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkártea, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Iñaxo Zubillaga eta Agurtzane Elgoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, A. Galdaera, T. Aragones, R. Velasco, J. M. Torres, E. Vazquez, Beinke, Udala.
Inprimategia: Eguzkigrif **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Ze balorazio egingo zenuke K-2-koek egin dutenei buruz?



Alberto Perez
(Ikaslea)

Joateaz bakarrik uste dut arrakasta izan dela.




M. Nekane Barbero
(Etxekoandrea)

Joatearekin nahikoa egin dutela uste dut. Niretako eta Atxabaltako herriarendako arrakasta bat izan dela uste dut. Errespetua, zorionak eta dena merezi dute.



Aitor Alkaide
(Ikaslea)

Niretako garrantzitsuena ez da igotea, igotzen badute hobe. Baloratu behar dena egin duten ahalegina da. Nik uste dut, herritar guztiok positiboki ikusi dugula egin dutena.



Luis Galdos
(Jubilatua)

Ni oso pozik nago egin dutenaz, ez dute gailurrera igo baina etxean daude eta azken finean hori da inportanteena.

KARTAK

Bazkide kanpaina barria

Oporretako atsedenaren ostean, Aretxagazeta barriro martxan jarri da. Urte t'érdi daroagu proiektu hau jaio zenetik eta ez dugu etsi gura. Beraz, ahalegin guztiak egiten jarraituko dugu herriko aldizkari honen bitartez, herriko berriak modu egoki eta beti ere gaurkotasunez zuei eskeintzeko.

Baina horrelako abentura bat gauzatzeko lan handia behar da. Hori dela eta, Atxa-

baltarrongana zuzentzen gara, bazkide eginez euren aportazioa egin dezaten. Bazkide izateak urtean 1000 pztan ordaintzea suposatzen du. Modu berean, bazkide guztiak euren etxetan Aretxagazeta jasotzeko aukera izango dute.

Bestalde, jakin badakigu gaur egungo egoera ekonomikoa ez dela ona, baina ez da ahaztu behar 'diru laguntza' horrekin helburu bi betetzen ditugula; bate-

tik herriko aldizkari bat edukitzea, Atxabaltar guztiendako zabalik dagoena eta bestetik Atxabaltan euskara normalizatzeko eta zabaltzeko suposatzen duen bultzada.

Esanak esan, bazkide berri egin gura duzuen denok 3 bide dituzue zuen izena emateko; Kultur Etxeko lokalera hurreratu, 790105 telefonora deitu edo publizitatea egiten duten komertzioetan bazkide

txartela hartu, orrialdea bete eta bertan utzi. Bide batez, gogoratu eragin gura dizuegu, bazkide izateko beste aukera San Migeletan emango dizuegula kalean jarriko dugun mahai baten bitartez.

Besterik gabe, zuen erantzuna baikorra izango delakoan, aldez aurretik eskerrak emanez agurtzen zaituztegu.

Aretxagazeta

Bertso saioa

Beinke kultur elkar-teak Aretxabaletako San Migel jaietarako ekitaldi bi antolatu ditu.

Batetik, eguakotxean, hilak 24, eta gabeko 10etan Aretxabaletako kiroletxean bertsolari jaialdi bikaina izango dugu. Honako bertsolari hauek parte hartuko dute: Angel Mari Peña-garikano, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso, Mad-

dalen Lujanbio eta Igor Elorza. Gai jartzailea os-tera, Jon Iñaki Izarzelai-a izango da. Sarrera 500 pezetakoa izango da.

Bestetik, irailaren 25ean, egun osoan ze-har, Durana kalean Bein-eko TRIL emakume taldeak talogileen txokoa jarriko du lehengo ohitu-ra zaharreen taloak, txis-torra eta sagardoa das-tatu ahal izateko.

Jubilatuena eguna

Aurten ere San Mi-geletako jaiekin batera, jubilatuek ere euren egun berezia izango dute.

Irailaren 25ean izan-go da. Goizeko 10,30etan hasiko da Ba-sotxon salda beroaz. 12etan Meza izango dute eta ordubetan bazkaria. Bazkaria Kirol-Etxean izango da, bertan arrain-zopa, piper be-teak, solomiloa, pastela, kafea, kopa eta puroa eukiko dute. Bazkalosteanko dantzal-dia izango dute Kintanila

trikitariekin.

Baina horrekin ez dira ekintzok bukatuko. Igan-dean III. Ibilaldi neurtua eukiko dute, herri ingu-ruan. Bertan Gipuzkoa guztiko jubilatuek elkar-tuko dira. Ibilaldia Otala-zelain hasiko da eta Are-txabaletako plazan bukatuko da, Larrinotik, Urkulutik, Arientzatik eta Arkarazotik pasatuta gero. Horrenbeste ibili ondoren indarbarritzeko, bazkaria izango dute Ki-rol-Etxean.



Dorletako III zikloturista ibilaldia

Aretxabaletako Txi-rrindulari Elkar-teak III. zikloturista martxa anto-latu du irailaren 19rako. Bai urteera eta baita bukatzeko tokia 'Dorle-tan' egongo da.

Denera 105 kilome-tro luze izango dute au-rrerian eta orain, ibilbideari erre-paso bat emango diogu: txirindulariek Ga-tzagan, Dorletako Ermi-tan, emango diote hasie-ra, gero Eskoriatza, Arla-ban, Landa, Ullibarri, Durana, Miñano, Urbina, Legutiano, Ubidea, Zubi-zabal, Otxandio, Legutia-no, Kurtzetako portua,

Aramaio, Arrasate, Are-txabaleta eta Eskoriatza pasatu beharko dituzte. Azkenean, Eskoriatzatik Dorletako ermitara azken pedalkadak emanez, bukatutzat emango da eguneko egin beharra.

Izen ematea 1000 pezetakoa izango da eta parte hartu gura duten denek Aretxabaletako Txirindulari Elkarteko-kin hartu emanetan jarri beharko dira. Era berean gogoratuko dizuegu, antolatzaileek araudi bat kaleratu dutela bete-beharreko baldintzak ze-hazteko asmoz.

IOSU
URDAITEGIA

Mitarte, 1

Martín
REFUCERIA - MIXITERIA

Bere bezeroen zerbitzura

Mitarte, 16
☎ 79 01 72


ZIRT - ZART
ESTILISTAK

ORDUTEGI INTENTSIBOA:
10,30etatik 6,30etara

Gorbea Kalea, 2 - Tfnoa: 77 09 44



Irailaren 6an, Arantzazura peregrinazioa egin zen. Atxabaltatik 4 autobusek urten zuten, nahiz eta baten batzuk oinez edo kotxez joan. Denera 300 atxabaltar inguru elkartu ziren Arantzazun.



Kurtzebarri eguna

Joan zen igandean Kurtzebarri eguna izan zen. Kurtzebarri gaina 10,30etatik aurrera jendez bete zen, nahiz eta haize hotza izan goian. 11etan meza eman zen eta ondo-

ren, salda eta txanpana bertara hurreratu ziren guztiendako.

Asteburu berean, Gazte akanpada egon zen Degurixan. Atxabaltako 10 bat gazte joan ziren.

"Bono-Taxi" programa

Deba Garaiko mankomunitateko Udaletan eta batez ere Gizate Zerbitzuko Saitetik zuzendua, irailaren 1etik aurrera, mugikortasun ezgaitasunek eragindako ezinduei zuzendutako "Bono-Taxi" programa martxan jarri da, Diputazioarekin hainbat jectio eginda gero.

Gaur egungo garraioetan ezinduak ibili ezin direla ikusita, izaera esperimental duen programa honek ezintasuna duten pertsona guztiendako taxi zerbitzua ipini gura du eta alternatiba horrekin pertsona horien bizitza sozial autonomoa garatu gura da.

Programa horien erabiltzaileek desplazamendu personalak taxiz egin ahal izateko, bonu moduan erabiliko duten laguntza ekonomikoa eman gura da.


Interesatuak lehenbait lehen euren herriko Udaletxera joan beharko dute, Gizarte Zerbitzu sailera.

- Datorren irailaren 17tik 30era arte, udaletxeko ganbaran, margo erakusketak interesgarria egongo da ikusgai, "Bergarako Margolaritza Ortonovon" lemapean. Antolatzaileak Kutxa Fundazioa eta Aretxabale-tako Udala dira. Erakusketa astegunetan Arratsaldeko 6etatik 8ak arte egongo da zabalik eta zapatuetan 12etatik 1ak arte.

- Aretxagazetako bazkide zaretenoi eta publizitate egiten duzeneoi, hilean behin Gatzagak aldizkaria helduko zaizue zeuen etxeetara, Aretxagazetarekin batera.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Basabe industrialdea
Aretxabaleta
Tfnoa: 79 88 75

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak
Biteri etorb. 15
Arrasate
Tfnoa: 77 12 39

Okila taldeak ikastaro barria antolatu du

Joan zen urtean bezala, Okila taldekoek hasierako taila ikastaroa emango du aurten ere. Ikastaroa urriaren 13an hasiko da, eta arratsaldeko 6,30etatik 8,30ak arte izango dira klaseak.

Ikastaroak denera 50

ordu iraungo du. Apuntatu gura duenak, Okila taldeak Nafarroa kalean daukan lokalera jo dezake.

Beraz, egurra lantzen ikasi gura duzuenoi Okila taldeak aukera ederra eskaintzen dizue.

Kirol materialak euskaratzeko beka

Kirol arloan euskarren normalkuntza lortzeko bidean Deba Garaiko Euskara Zerbitzuek, Kirol Zerbitzuekin batera, oinarritzko kirol materialak euskaratzeko beka sortu dute.

Beka honen lehenengo edizioaren helburua futbol arloko oinarritzko liburu baten zatia euskeratzea izango da eta liburu beka eskatzen duenak aukeratuko du, baina atal konkretu batzuekin.

Testua grafikorik gabe, tarte bikoitzez ida-

tzita 130-150 orrialde inguru izan beharko ditu eta edozeinek eskatu dezake beka.

Beka 300.000 pztakoa izango da eta beka ematen denetik hasita 4 hilabeteko iraupena izango du.

Interesatuak Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzura bidali beharko dituzte eskabideak, urriak 10 baino lehen, oinarrietan aitatzen diren baldintzak betez. Informazio gehiago behar duenak, Euskara eta Kirol Zerbitzuetara jo dezala.

Hitzaldia

Irailak 29an, arratsaldeko 7etan udaletxeko ganbaran, Euskara Batzordeak antolatutako hitzaldia izango da.

Hitzaldia, 0 - 3 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoei dago zu-

zenduta eta haurrak hizkuntzak zela ikasten dituzten argitzeko egin gura izan da.

Hizlaria, Eskoriatzako Irakasle Eskolako irakaslea den Marian Bilbatua izango da.



Hirigintza saileko berriak

Abuztuan zehar, Aretxabaletan, martxan zeuden obra batzuk bukatu dituzte eta beste batzuk hasi egingo dira irailean zehar, orain obra hauen aipamen txiki bat egingo dugu: Markoleko zubi inguruko erreka bideratu dute. Industrialdeko bidea eta herriko kale batzuk asfaltatu dituzte. Kanposantua zabaltzearen 2. fasea egin

da. Trenbide inguruko pasealekua garbitzen hasi dira. Otorala kaleko fatxadak garbitzen hasi behar dira. Sailuenteko ermita berriztearekin bukatu dute.

Irailean, Andra Mari auzunean hirigintza eta infrastrukturen berritze obrak hasiko dira. Obra honek 48 milioiko aurrekontua du eta 4 hilabeteko iraupena.



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

K-2ak munduko bigarren gailur altuenak, ezetz esan dio Atxabaltatik joandako Astore Kutxa espedizioari. Dena dela pozik eta bueltatzeko asmotan etxeratu dira. Ezetzaren aurrean, ez ziren garaituak sentitu eta

datarren urtera arte agurtu zuten aurten kalabazak eman dien K-2 mendia.

Bost atxabaltar eta bi nafarrek osatu dute espedizioa, hiru hilabetetan zehar izan ditugu K-2n tontorrera igoteko asmotan.



Astore Kutxa espedizioa etxean

Maiatzaren azkenetan Pakistan aldera urten zuten atxabaltatik Jon Ander Loidik, Joseba Urkiak, Fernando Uribesalgok, Felis eta Alberto Iñurategik, Kontxi Zozaia eta Kepa Mateo nafarrekin batera.

Pakistanera heldu bezain laster eta papeleoak egin ondoren, K-2rako bidea hartu zuten. Hasieran karreteratik sei etapa egin zituzten Mazadalara heldu arte, hemendik K-2ko glaziarra bukatzen den puntura beste zazpi etapa zeuden kameiluz egin beharrekoak. Kameiluei agur esan eta euren txanda etorri zen.

Lehen kanpamendua

Lehenengo kanpamendua, 4.600 metrotan jarri zuten. Ekainak 15 eta 16an basea antolatu eta deskantsatzeko erabiliz, 17an bi sherpak kanpamendua bedeinka-

tu zuten, horrela bada, 18an ekin zioten lanari. Kanpo base aurreratura ekainaren 19an heldu ziren, 4.900 metro inguruen zegoen kokatuta. Ekainaren 20, 21, 22 eta 23an izan ziren espedizio guztian segidan izan zituzten egunik onenak. 24ean lehen kanpamendura abiatzeko plana egin baina elurra hasi zuen, bi egunez sekulako elurra bota zuen, ondorioz 28rarte ez ziren lehen kanpamendura heldu (5.500 metrotan).

Bigarren kanpamendura begira

Hurrengo egunean, 500 metro soka sartuz gorako lanari ekin zioten. Egun batzuk gelditu egon beharra, eguraldia txarragatik eta uztailearen 6 eta 7an lan saio berri bat aurrean; espedizio guztian egun bi segidan horman lan egi-

teko aukera izan zuten aldi bakarra izan zen. Egun bakoitzean 400 metro soka gehiago sartu eta bigarrenera ailegetako azkenengo palan gelditu ziren. Uztailearen 15erarte ez zuten mendira itzultzeko aukerarik izan eguraldian erruz.

Uztailearen 20an bigarren kanpamendura heldu ziren 6.700 metrotan. Uztaileak 27an horma aldera hurreratzeko goizeko ordu bietan altxa, 3 ordu laurdenetako bidea egin eta buelta!, elur larregi tonkoterietan ibiltzeko!.

Uztailearen 28an barrero ere eguraldi txarra eta ziurtasun faltagatik lehen kanpamendura jaitsi ziren. 29an barrero bigarren kanpamendura baina, konfidantza handi barik, eguraldiak ez zuten itxura onik eta.

Uztailearen 30ean 7.200 metrotan hirugarren kanpamendua.

31ean, goruntz jo zuten 4. kanpamendura arte, 7.900 metrotan.

Azken ahalegina

Uztailearen 31ko gauean Felis eta Albertok gailurrerako bidea hartu zuten, elurra bigunegia zegoen, gerritik gora sartu eta han ibiltzeko modurik ez zegoela ikusita 8.100 metrotan itzultzea erabaki zuten.

Metro batzuk jaitzita gero, abuztuaren 1ean 3. kanpamenduan zeuden. Han anaia biek beste saio bat egingo zuten galdetu zioten elkarri, baina egoera horretarako ez zegoela ikusita bueltarako bidean pentsetan hasi ziren.

Hurrengo egunetan denak elkartu eta gauzak batu ondoren Pakistanerantz hasi zuten bidea.

Irailaren 3an denon pozerako Atxabaltan zeuden. Zorionak!

k-2ko kontuak jakiteko asmoz, Felis Iñurrategi eta Jon Ander Loidi ekarri genituen Aretxagazetako lokalera. Elkarrizketan, hainbat kontu eta anekdota kontatu zizkiguten. Baina ez bakarrik Pakistan eta Txina aldeko berriak, elkarrizketa horrekin batera, Atxabaltako herria zoriondu zuten, herri honek eman dien laguntzagarrik. Euren esanetara, lau espedizio lortu badituzte, Atxabaltan bizi direlako da. Hona hemen eurekin izan genuen elkarrizketa.



"Zalantza barik eguraldia izan da oztopo nagusia"

• Zeintzuk izan dira euki dituzuen arazoak?

• Batez ere, arazo elektronikoa izan genituen, eroandako aparatu elektronikoak ia guztiak apurtu zitzaizkigun. Plaka solarra ezin izan geuen erabili, telefonoa hondatu, argazki makinak, bideoa eta altimetroak ere beste horrenbeste sufritu zuten, egia esateko elektronikak huts egin zigun.

• Uste baino urrutiko eraman behar izan zenuten karga?

• Bai egia da, toki

konkretu batera heldu ginen eta porteatzaileek agur esan ziguten. Hortik aurrera geuk kargatu genuen dena. Jakin bagenekien porteatzaileen laguntza toki horretaraino izango zela, baina ez genuen uste lehen basea hain urruti zegoenik. Behar bada, gure aldetik informazio falta izan zen.

• Aurten bost atxabaltar joan zarete, zela baloratzen duzue esperientzia?

• Uste dugu ez dela ez positiboagoa, ezta negatiboagoa ere. Mendi bakoitzendako planteamendu bat eroan behar da eta guk osa-

"Osatu genuen taldea izugarritzko aziertoa izan zen"

tu genuen taldea izugarritzko aziertoa izan zen. Lan asko egon da eta partaide guztiok ondo erantzun dugu, lan egin behar zenean lan eta lasai egon behar zenean lasai.

Gainera taldean oso ambiente ona egon da, eta horrek ere asko lagundu digu hiru hilabete luze horietan.

• K-2ak horrelako zailtasunak ditu edo eguraldia izan da oztopo nagusia?

• Zalantza barik eguraldia izan da oztopo nagusia. Izan ere, ezin izan genituen 8.000 metroraikino sokak jarri, ondorioz, aurrera egiteko makina bat arazo izan genituen. Dena dela, mendia uste genuena baino samurragoa izan da, zailtasun teknikoak ia ez zeuden. Horman sartzen zaren momentutik tontorreraino oso mendi agradezidua da, zailtasun konstanteak dituzu, ez dago puntu bat ere oso zaila agobiatzeko modukoa edo oso samurra aspertzeko.

• Zer esan dezakezue Atxabaltako herria eta Murruxiori buruz?

• Ez dugu barbarik eskerrak emateko. Murruxio eta orohar Atxabaltako herria zoragarri portatu da gurekin. Gainera argi daukagu, guk lau urtetan lau espedizio lortu baditugu Atxabaltan bizi garelako dela.

Kontutan euki behar dugu, gu mendira joateko, beste batzuk lanean geratu behar direla, eta lan hori ere eskertzekoa da.

Zelakoa izan da zuen esperientzia K-2an?

Felis Iñurrategi:

K-2ak esperientzi barri asko ekarri dizkit. Egunerok ikasten da zeozer eta espedizio honetan ere asko ikasi dut. Esaterako herrialde bi ezagutu ditut Pakistan eta Txina, horrela bada, aurrerantzean konparaketak egiteko erreferentziak badituz; Nepal, Pakistan, Txina.

Mendiari begira, aurten ez dugu tontorrik lortu baina geure burua sekula baino gogorrago ikusi dugu, begiak asko zabaldu zaizkigu eta lehen aldiz arazo delikatuetan sartzeko konfidantza sentitu dut.

Bestalde ikusi dugu antolaketa aldetik zenbait gauza zuzendu daitezkeela; janarian berrikuntzaren bat, funtzionamendu aldetik aldaketaren bat...

Iraupenari buruz, beharbada luzeegia izan da baina gehiago hemen egon direnendako. Gu mendian denbora hil batean gaude, beti dituzu gauzak egiteko beraz denbora konturatu barik pasetan da.

Jon Ander Loidi:

Nik esperientzia hau, liburu bat irakurtzen duzunean gertatzen zaizunaz konparatzen dut. Joaten zarenean liburua zabaltzen duzu, bertako abenturak kapitulu desderdinak lirateke eta bueltatzerakoan itxi egiten da liburua. Zure bizitzako pasarte bat da, oso motza, egun bakar batzuetako kontua izango balitz sentitzen duzu. Gainera joan aurretik zeure buruan hango bizimoduari buruz eskema batzuk egiten dituzu, hara heltzerakoan ostera denak apurtzen zaizkizu. Errealitateak ez du zuk amestu duzunarekiko antzik. Mendian dinamikan sartzen zara eta momentu onak zein txarrak tartekatuz egunak berehala pasetan zaizkizu. Bizi egin behar da egoera hori, berben bitartez ez dago adierazterik.

Fernando Uribersalgo:

Esperientzia zoragarria, paregabea iruditu zait. Alderdi hura beste mundu bat da. Bidaia honetan gehien gustatu zaidana joandako jendearen artean izan ditugun harremanak dira, denbora luzea egon gara batera eta inolako arazorik ez izatea, benetan da pozgarria.

Bestalde, helburu bi bete guran joan nintzen, gailurra egin batetik eta euskara ikasi bestetik. Ez bata ezta bestea ere ez dut lortu eta pena bat da ze euskara ikasteko aukera ezin hobea izan dut. Dena dela, hurrengo batean lortzeko itxaropenak dauzkat.

Alberto Iñurrategi:

Esperientzia desberdina izan da. Egin ditugun beste espedizioekin konparatuz kontraste handiak ikusi ditut. Lagun arteko konbibiencia sekula baino lotuagoa izan da, oso ondo konpondu gara, oso ambiente ona egon da, guzti honek pertsonak hobeto ezagutzen laguntzen dizu.


Pakistan eta Txina ezagutzea ere barria izan da. Azken finean espedizioa oso positiboa ikusi dut eta berriz entrenatzen hasi eta itzultzeko gogoz etorri naiz.

Oharra:

Ezin izan dugu Joseba Urkiarekin harremanetan jarri eta horregatik ez ditugu, bere esperientziak bertan kontatzen.

Beraz hurrengo batean, bera ere gure artean edukitzea espero dugu.

Zorionak espedizio guztiari Aretxagazeta Elkartearen partez.



Aurten ere Ortzadar taldea azaro hasieran herriko ume guztiekin egongo da. Ortzadar taldea zapatu arratsaldeetan Atxabaltako umeen denbora libreka ekintza desberdinekin beteten ahaleginduko da. Honen berri eukiteko, Mikel Lopezekin egon gara berbetan.



Ortzadar taldea, urte barri baten aurrean

• Noiz sortu zen Ortzadar?

• 1980. urtean osatu zen Atseden taldea, baina orain dela 4 urte Ortzadar. Biek funtzio berdina egiten dute, baka-rik izen aldaketa bat egon zen, beraz esan dezakegu 13 urte luze daramagula martxan.

• Zergatik sortu zen Ortzadar?

• Elizak konfirmazio talde bat zeukan, orain Ortzadarren egiten dituen ekintzak egin gura zituenak, eta horrela sortu zen talde hau. Baina ordutik hona gauza asko aldatu dira, orain pertsona desberdinak gaude talde honetan, taldea asko aldatu da.

• Momentu honetan zenbat monitore

zabiltzate Ortzadarraren?

• Orain 20 monitore gaude, 17 urtetik 22 urte ingururarte. Gainera azken urte hauetan, Ortzadarreko monitore guztiak titulua ataraten gabiltza poliki-poliki, umeei ekintza eta gauza desberdin gehiago emateko.

• Orain urte berri baten aurrean zaude, zuen helburu nagusiak zeintzun dira?

• Aurtengo gure helburu nagusia proiektu edukatibo bat egitea da. Baina helburu hau guk monitoreok ipini duguna da.

Baina umeentzat gure helburu nagusia eta garrantzitsuena atxabaltako umeak zapatu arrat-

saldeetan duten denbora libreka ekintza desberdinekin betetea da.

• Noiz eta non apuntatu behar dira umeak?

• Azaroan hasten gara eta urriaren 2. astean hasi daitezke apuntetan. Baina hala eta guztiz ere urria hasieran eskoletara eroango ditugu, umeak apuntetako orriak.

• Zenbat kostatzen da apuntatzea?

• Debalde da, ez dute ezer ordaindu behar.

• Ze urtetako umeekin egiten duzue lan?

• Lehenengo mailatik 3. R.E. Mera artekoekin. 5. mailan dabilzan umeak izaten dira normalean gehien etortzen

direnak.

• Zenbat ume espero duzue aurten?

• 200 ume inguru espero ditugu, urtero media antzekoa eukiten dugu.

• Ze barrikuntza duzue gertu 1993-94 urterako?

• Urrian monitoreok proiektu edukatibo bat egin behar dugu, horretarako monitoreak urrian lau asteburutan elkatuko gara.

Umeentzat berriz, aurten diru gehiago daukagunez gure asmoa irteera gehiago eta hobeak egitea da eta behar bada beste probintzi batzuetako umeekin interkanbioak egingo ditugu, baina hau oraindik ez dago ziurtatua.

Aurten San Migel jaietako egitarau barruan, II. Mila Urbanoa izango da protagonista kirol ekintzetan. Antolatzaileek iazko balantze positiboak ikusita baikor agertu dira, bigarren urteko erronkari aurre egiteko, eta horretarako Euskadi mailako korrikalari onenak etorriko dira.



Eliteko II. Mila Urbanoa Atxabaltan

Uda eta Almen elkarrekin bultzaturik eta korrikalariekin entrenatzaile lanetan dabilen Ramon Eraña eta Pedro Azkargortaren laguntza, orain duela urte bete I. mila urbanoa jaino zen. Hasieran jendeak eman zezakeen erantzunaz beldur ziren baina ikusitakoak ikusi ondoren, "aurtengoa aurrera eramateko ez dugu zalantzarik izan" aitortu ziguten antolatzaileek.

Dena dela, korrika munduan ere, diruaren mamua eguneroko gauza bihurtzen da eta jakina, horrelako lasterketa bati merezi duen izena emateko diru asko behar da. Izan ere, diruaren araberako korrikalari hobeak edo txarragoak ekartzea lortu dezakezu eta.

Dagoeneko diru laguntza finko bat badaukate, Udalak eman

behar diena alegia. Baina nahikoa ez dela jakinean herriko taberna batzuetara jo dute diru gehiago batzeko asmoz. "Guztira 100.000 pezeta jasotzea espero dugu".

Beraz diru hori lortu ezkeren II. Milako pistoia igo gura dute. "Euskadi mailan dauden korrikalari onentsuenak ekartzeko lanean hasita gaude. Jadanik korrikalari batzuekin egon gara; adibidez Antonio Peula, Espainiako txapelduna 3.000 hesidunetan, Patxi Hernandez Euskadiko txapelduna 400 metroetan eta Iñaki Eskalonen parte hartzea ziurtatuta dugu".

Ez dabilta ez, txantxetan lasterketa hau prestatzen dihardutenak. Euren nahia ganorazko lasterketa bat antolatzea da Euskadi mailako korrikalari onenez baliatuz. "Gainera iaz lasterketariak oso

pozik joan ziren Atxabaltan bildutako jendearen erantzuna bikaina izan zelako. Hau dela eta aurten ez dugula korrikalariak ekartzeko arazorik izango uste dugu".

Gauzak horrela, antolatzaileek horrelako lasterketa bat antolatzean helburu bi bete gura dute. "Batetik korrikalari barriak sortzea gustatuko litzai-guke. Bestetik jendearegan afizioa sortzea gura genuke. Jendeak gertutik ezagutu ditzen korrikalarien inguruko gorabeherak".

Esanak esan, Irailaren 24ean Aretxabaletako II. mila urbanoa korrituko da Atxabaltako kaleetan zehar. Lau maila desberdinetan banaturik, arratsaldeko 7,30etan emango zaio hasiera probari. Izena emateko, 15 minutu lehenago aurkeztu beharko dira.

Aurten Juan Ramon Arana Memorialean, eskubaloari tokatzen zaio txanda. Irailaren 18an jokatu da, Bidebieta Corteblando eta Hernani taldeek jokatu dute partidu hau. Partidua arratsaldeko 6,30etan hasiko da, Aretxabaletako Kirol-Etxean eta sarrera debalde izango da. Gabon inguruan barriz, Elgorriaga izango dugu Aretxabaletan.

"Villa Aretxabaleta" sarian Udako jokalariek, Mondrako jokalarien kontra neurtu zituzten indarrak, banako berdinketa egin ondoren penaltitan erabaki zen neurtuta Atxabaltako taldearen alde. Bigarren zatian, U.D.A aurretik jarri arren Modrauetarrek berdinketaren gola lortu zuten.

Oraingoan Leintz Bailarako txoko ezagun batera jo dugu. Gaur egun Apotzaga, Eskoriatzako elizatea bada ere, denok dakizuen bezala 1556tik 1630erarte Leintz Bailara izenaz ezagutzen zituzten Aretxabaleta gehi Eskoriatza gehi hamasei elizateen batura.

Horretariko txoko batera, Apotzagara, hain zuzen ere, heldu zen emende honen erdi alde-
ra On Anastasio Otadui apaiza, arrasatearra bera. Berak utzitako lanen artean, aipagarriena eta ezagunena kanposantua dugu. Zirkularra, lehengo euskal kanposantuaren itxura ema-

naz. Lehenagoko Kromlech-ek **UTSAREN BETETASUNA** adierazten zutena gogoratuz eta adieraziz. Baserri bakoitzak bere lur zatia dauka eta bertan hilobiratzen dituzte familiako hildakoak.

Apaiz honek, eta errespetu osoz esanda, zentzu harrapakaria zuen. Eta hala nola, bere kanposantua hornitu ahal izateko han eta hemen harri bila hasi zen. Kanposantuko aldara atzekaldean dagoen San Migela, bertako elizaren kanpokaldetik kendu zuen. Sarreran, eskubitara dagoen bataio ponte erromanikoa, Galartzatik ekarri zuen, eta kan-



posatu erdian kokaturiko gurutze bitxia, Maringo gurutzea da.

Marinen zegoenean, gurutze honek bi funtzio betetzen zituen; bata berari zegokiona, hau da erlijiosoa; eta bestetik, metereologikoa. Ez zuen eguraldia asmatzen, erabakit-

zen baizik. Aitzorrotzera begira, aterri. Jarindora begira, euria. Aizu, benetan!

Gurutzearen abilezia / mirari honen intringulitsak beste batean kontatuko ditugu.

**A. Antxia
L. Urreta**

ERRETRATUAREKIN JOLASEAN

• Erantzun guztiek **ARETXAGAZETA**ren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datorren asteko eguakotxa baino lehen.

• Asmetan dutenen artean K-2 espedizioko txandal-fraka zozketatuko da.

Hona hemen aste honetako galdera:

Non dago argazkian ageri den iturria?

(Aurreko zenbakiko erantzuna: Izurieta)

Aurreko lehiaketaren irabazlea IKER IGLESIAS. Zorionak.



✂

Erantzuna:

Izen-abizenak:

Helbidea:

Tfnoa:

Sartu-urtenak



J.J. Aretxaga

Non hasi jakin ez eta txikiengandik hasi behar. Datorren domekan, hilak 19an, **Haurren Eguna** izango da. Betikoa, kanpoko ume asko etorriko dira gure herrira eta antolatzaileek herritarren laguntza behar dute umeei bazkaltzen emateko. laz nahiko txarto ibili ziren umeendako lekua topetako, aurten hobeto portatuko ahal gara hona datozen umeekin. Laguntza bila dabilen beste talde bat **herriko korua** da. Bazkideak behar ei dituzte taldea indartzeko, urtean bi mila pezeta besterik ez dira. Hala eta ere, badira jendea topetako problemarik ez duten taldeak ere. Nesken futbol taldetik **Agurtzane Mujikak** urten egin du; baina bere partez bost gazte sartu dira ekiptoan: **Nerea Etxandia, Giomar Fernandez, Eneritz Urrutia, Arantxa Fernandez** eta **Amaia Garcia**.

Gure etxean ere, Aretxagazetan, batek urten du eta beste bat sartu da. **Goretti Ayastuy** Almenera joan da umeei zerbait

irakasteko esperantzaz eta **Itxaro Zubillaga** izango da kazetari barria. Eta komunkabideekin jarraituaz, esan behar ondoko herrian, Mondragoen, **Maria Agirre** Arrasate Pressen lanean hasi dela eta **Andoni Urzelai** ATBko arduradun jarri dutela. Atxabaltarok dena kontrolpean daukagu. Eta urrintxoago joanda: Gatzagan aldizkari barria atara dute, "Urlatik" izena daukana. "Urlatik" Aretxagazetako bazkide guztiei banatuko zaie, hemen egiten denez pribilejio batzuk dauzkagu. (Eskoriatzarrak zeri begira ete daude?)

Eta urten, joan zen domekan 2. A mailako Atletikekoekin urten zuen **Igor Arenazak**, 20 minutu besterik ez ei ziren izan, baina poliki-poliki badabil. Nik ez dakit urten guran zebilen ala ez, baina beste honi ez diote urtetan utzi; **Asier Guenetxeak** datorren urtean ere Artiach taldearekin jarraituko du.

Urten edo egin duena, edadeagatik, **Jesus Elorza** izan da, herriko enterradorea. Urteetan lan asko eginda gero berak ere ondo merezitako deskantsua hartuko du, jubilatuta egin da eta.

Deskantsu bila edo auskalo zeren bila joan dena Aretxagazetako kolaboratzaile bat izan da; **Jon Sarasua**. El Salvadorrera joan da "oporretan" eta ez dakigu noiz datorren. Nik ere bertsotan ikasi banu...

Ahaztu baino lehen, **Txabeli** izeneko bat ezkondu egin ei da.

KOMIKIA



17

EGUAKOTXA

- "Bergarako Margolaritza Ortomovon" deritzon erakusketa hasiera, Udaletxeko Ganbaran.

Mendi Elkartearen urteera: **Udalaitzera (Besai-de Eguna)**

- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Aramaio - Krutzeta - Legutiano - Ubidea - Zubizabal - Otxandio - Urkiola - Aretxabaleta.** (107 Km)

19

DOMEKA

- **Haurren eguna.** Loramendi dantza taldearen eskutik.

- **Zaraia Mendi Taldearen eta Murrukixo**



24

EGUAKOTXA

- **San Migel jaien hasiera.** (Ikus egitarau berezia)

25

ZAPATUA

- **Jubilatu**en eguna.
- **San Migel jaiak.**

26

DOMEKA

- **Murrukixo Mendi Elkartearen urteera: Erniora.**

- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Urbina - Gasteiz - Otazu - Okina - Aretxabaleta.** (96 Km).

- **Gipuzkoako Jubilatuen eta Pensionisten II. Ibilaldi Neurtua,** herri inguruko hauzoetatik zehar.

ARETXAZOKA

Lana

- Ingeneritzako ikasle bat, klaseak emateko prest: Matematika, teknologia, fisika eta kimika. O.H.O, REM eta U.B.lko mailetan. Interesatuak telefono honetara deitu: 79 50 39.

- Emakume esperientziadunak etxeko lanak egin edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 60 18.

Etxebizitza

- Etxebizitza salgai Mitarte 15 kалан. Dei ezazue 79 74 95 telefonora, arratsaldeko 8,30etatik aurrera.

- Pisu bat saltzen da. Interesatuak telefono honetara deitu: 79 02 73.

- Pisu bat alokatzen dut Aretxabaletan, lo egiteko posibilitatearekin bakarrik. 79 59 78

Etxebizitza

- Telefonikako langile batek pisu bat behar du Aretxabaletan. Interesatuak deitu telefonora dei dezala.

- Pisu bat alkilerrean behar dut, ez du inporta amueblatu gabe egoten bada. Interesatuak deitu Copresira, 79 45 00 gaueko 10etatik goizeko 6retara eta Jon Ander Mendietagatik galdetu.

Denetarik

- **Astero Sarrikora** goizez joateko kotxe baten bila nabil. Lekua izanez gero deitu 79 87 36 telefonora.

- **Datorren ikasturtean** Bilbora egunero arratsaldean joateko interesatuak dei egin 77 08 32 telefonora.

SEAT

**GARAJE
OSKAR**
Basabe poligonoa
A - 2 - 4
Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA
ANAIAK

**BASABE
JATETXEA**

Menu eta afariak
Industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 77 07 94
79 91 84


ITURGINTZA

J.J


Tfnoak: 79 07 34
79 31 87


LEIBAR

ARRAINDEGIA




Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

 Mitarte 21, behea
Tfnoa: 79 79 79
ARETXABALETA



**T
X
I
L
T
R
R
A**



**ELIKADURA
BEREZIA**

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28

ARETXABALETA

**Zatoz ezagutzera
ZUHAITZ
jatetxea!**



BASABE JATETXEA
JESULAKO
SAN DOMINGO !!!

**BAZKARI
ETA AFARI
ONENAK!!!**

Tfnoa: 71 41 21

GATZAGAN

RKLU

INDUSTRIA
HORNIKUNTZAK
URKULU, S. A

Mitarte, 23
Tfnoa: 79 96 66

IMANOL ARRAZOLA

KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1. D
☎ 79 93 55

**Mobiliario
ARENZA**

ALTZAIRUAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA

LASA-AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16
Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71 69
ARETXABALETA

NERIAN

Loradenda

Otalora, 14 behea
Tfnoa: 79 70 66

EUSKERA IKASTAROAK 1993-94

Maila guztiak: EUSKALDUNTZEN, ALFABETATZEN eta EGA

ERRITMOA

Egunero 2 ordu
Egunero 3 ordu
Egunero 5 ordu

IRAUPENA

Iraila - Ekaina
Iraila - Ekaina
Iraila - Otsaila
Otsaila - Ekaina

PREZIOAK

20.100 pzta
30.100 pzta
26.100 pzta
26.100 pzta

Bekatzeko sistema eta diru-laguntzak izango dira.

MATRIKULALDIA:

Irailaren 1etik aurrera zabalik.

BULEGO ORDUTEGIA:

Goizez: 9retatik 1etara
Arratsaldez: 3retatik 7etara



Aretxabaletako - Eskoriatzako "Leintz" Udala Euskaltea

Durana, 11 Aretxabaleta Fernando Enparantza (Eskoriatza) ☎ 79 21 68



ATXABALTARRON ALDIZKARIA

Aretxagazeta Elkartearen, Kultur -Etxea

ARETXABALETA

Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila